

DEBAko UDALA

2015SPLE0007
7. bilera: EZ-OHIKOA 2015-06-13

UDALEKO PLENOA **BILERA-AKTA**

BILERA: EZ-OHIKOA
BILERA ZENBAKIA: 7
EGUNA: 2015/06/13
ORDUA: 11:00
TOKIA: Pleno-aretoa.

BERTARATUAK:

Pedro M^a BENGOETXEA LOIOLA, Aitor SALEGI IRURETA, Ane MIREN EGIDAZU ELOSUA, M^a Luisa ALBIZU BEITIA eta Iñaki ESNAOLA OSTOLAZA, DEBARREN AHOTSAkoak; Maider ZUBICARAY BERISTAIN, Aimar LASA URKIRI, Itziar IRIZAR BERISTAIN, José Luis ALBIZU BERISTAIN eta Miren Elizabeth URTEAGA IÑARRA EH BILDUkoak; Cristobal DEL CORTE LAPACHERIE, Unai LEKUBE ARANBERRI eta Iñigo CAMBRONERO ALKORTA, EAJ-PNV-koak.

Idazkaria: Itziar Sagastagoia Zabala.


2015eko ekainaren 13ko UDALBATZA honetan legealdi honetako UDALA ERATU zen.

Batzar honen helburua Korporazioa eratzea eta Alkatea hautatzea eta izendatzea zen.

Lehendabizi, hau esanez, idazkariak bilerari hasiera ematen zion:

« Ni udal-idazkaria naizenez, bilera honi hasiera ematea tokatzen zait, horretarako, lehendabizi egin beharrekoa, **adineko-mahaia osatzea da**. Adineko mahaia idazkariaz gain, hautatutako zinegotzien artean adin-nagusikoa eta adin-txikikoa direnak osatzen dute. Beraz, ITZIAR IRIZAR BERISTAIN zinegotzi gazteena denez (1987-03-01ean jaioa), eta JOSE LUIS ALBIZU BERISTAIN zaharrena denez, (1952-03-15ean jaioa), beraiek osatuko dute adineko-mahaia.

Bestalde, zinegotziek bateraezintasun eta ondasunen aitortpena egin dute eta zinegotzietan hauteskunde-batzordeak emandako kredentzialak aurkeztu ondoren, ondo daudela egiaztatu dira.



DEBAko UDALA

Halaber ez ohiko kontaketa egin da eta erakundeak korporazioko kutxan edo banku-erakundeetan dituen baloreen edo eskudiruzko izakinen egiaztagiriak ere emateaz gain, inbentarioa ere eguneratuta eta prestatuta dago.

Hori horrela izanik, hautatutako zinegotziori dei egingo dizuet eta deitu ahala eseri zaitezte mesedez aretoko mahaiaren inguruan .

DEBARREN AHOTSA-tik :

- PEDRO M^a BENGOETXEA LOIOLA
- AITOR SALEGI IRURETA
- ANE MIREN EGIDAZU ELOSUA
- M^a LUISA ALBIZU BEITIA
- IÑAKI ESNAOLA OSTOLAZA

EH-BILDU-tik :

- MAIDER ZUBICARAY BERISTAIN
- AIMAR LASA URKIRI
- ITZIAR IRIZAR BERISTAIN
- JOSÉ LUIS ALBIZU BERISTAIN
- MIREN ELIZABETH URTEAGA IÑARRA


EAJ-PNV-tik :

- CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE
- UNAI LEKUBE ARANBERRI
- IÑIGO CAMBRONERO ALKORTA

Korporazioa osatzeko gutxienez gehiengo absolutua behar da. Hemen hamairu zinegotzi zaudete, hau da, korporazio osatzen duzuen guztiok. Horren ondorioz, Korporazioa eratuta gelditu da.

Zinegotziek bere karguaz jabetzeko legez ezarritako zin-egite formula baieztatu behar dute. Horretarako bakoitzari formula hori irakurriko dizuet zuek erantzuna eman dezazuen.

Zinegite formula : ***Onartzen duzu hautatua izan zaren zinegotzi kargua eta zin egiten duzu zintzo eta leial beteko dituzula horri dagozkion betebeharrak eta ordenamendu juridikoa? »***



DEBAko UDALA

ERANTZUNA :

BAI, Pedro M^a BENGOTXEA LOIOLA, Aitor SALEGI IRURETA, Ane MIREN EGIDAZU ELOSUA, M^a Luisa ALBIZU BEITIA eta Iñaki ESNAOLA OSTOLAZAK

BAI, legez hala behartuta erantzun zuten Mainer ZUBICARAY BERISTAIN, Aimar LASA URKIRI, Itziar IRIZAR BERISTAIN, José Luis ALBIZU BERISTAIN eta Miren Elizabeth URTEAGA IÑARRAK

BAI, legearen aginduz eta ezin bestean Cristobal DEL CORTE LAPACHERIE, Unai LEKUBE ARANBERRI eta Iñigo CAMBRONERO ALKORTAK

Hurrengo pausoa **Alkatea hautatzea eta izendatzea zen**. Hautagaiak zerrendaburu direnak izan daitezke, hau da :

- PEDRO BENGOCHEA LOYOLA (DEBARREN AHOTSA)
- MAIDER ZUBIKARAY BERISTAIN (EH BILDU)
- CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE (EAJ-PNV)

Hautesleak berriz, zinegotzi guziak.


Idazkariak esan zien : « Alkatea hautatzeko bozketa egingo da eta horretarako zinegotzi bakoitzari papeleta bana eman dizuet, nahi duzuen hautagaien alboan X bat jartzeko.

Gehiengo absolutua lortzen duenak, Alkate aldarrikatuko da. Ez balego hautagairik gehiengo absolutua lortu duenik, Alkatea herrian boto gehiena lortu duen zerrendaburua izango da ».

Bozketa egin zen, eta hauek izan ziren emaitzak :

HAUTAGAIAK	BOTOAK
PEDRO BENGOCHEA LOYOLA, jaunak	8
MAIDER ZUBIKARAY BERISTAIN, andreak	5
CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE jaunak	0
GUZTIRA	13

A) Bozketaren emaitzak ikusita, **DEBARREN AHOTSAK-eko** zerrendaburuak botoen legezko **gehiengo absolutua** lortu zuela kontuan hartuta, **PEDRO BENGOCHEA LOYOLA, aldarrikatu zen Debako Udaleko Alkate.**



DEBAko UDALA

Zinegotziek egin zuten bezala, Alkateak ere bere karguaz jabetzeko ondorengo zinegite-formula baieztatu zuen.

Zinegite formula : **Onartzen duzu hautatua izan zaren ALKATE kargua eta zin egiten duzu zintzo eta leial beteko dituzula horri dagozkion betebeharrak eta ordenamendu juridikoa?**

ERANTZUNA : bai, erantzun zuen Pedro Bengoechea Loyolak.

Beraz, PEDRO BENGOCHEA LOYOLA alkate jauna zorientzen da.

Bukatzeko, lehengo legealdiko alkatea izan den Maider Zubikaray Beristainek aginteztata (agintea irudikatzen duena) eman zion hautatu berria den alkateari eta ondoren, zerrenda-buru bakoitzak hitz batzuk esan zituzten.

Hauxe izan zen esandakoa :

- MAIDER ZUBIKARAY BERISTAIN (EH BILDU)-koak :


« -Gaur datozen lau urteei begirako bide berri bat hasten du Debako udalak. Eskerrak eman nahi dizkiegu lehenik, gure aldeko hautua egin eta babesak eman diguten herritarrei, eta zorionak Debarren Ahotsari herritarrengandik jasotako babesagatik. Euskal Herria Bilduk, jarrera eraikitzailea eta irekia izanaz, herritarrekin batera herri honen alde egiten jarraitu nahi du.

-Euskal Herria Bilduk, gure herrian ireki den ziklo politiko berria bururaino eramateko lan egingo du Deban zein nazio mailan. Gure etorkizuna libreki erabakitzeko eskubidearen aldeko herri aldarria bultzatu eta sendotuz, herri libre bat izateko aukera erreal baten aurrean gaude. Baita gatazkak azken urteetan utzi dizkigun ondorioak gainditzeko aukera batean aurrean ere.

-Orain arte bezala, Lau zutabe nagusitan zehaztuko dugu gure ekarpena: Erabakitzeko eskubidearen aldeko lanean akordio ahalik eta zabalenak bilatuko ditugu, erakundearen zein kaleko eragileekin, Euskal Herriaren etorkizuna euskal herritarren eskuetan egon dadin. Aurreko legealdian Itziarko Auzo Udalaren osaketarekin egin dugun moduan, erabakitze eskubidea herri erabaki garrantzitsuenen zentroan jartzeko lan egingo dugu. Herrian erabakitzen hasi, Euskal Herriak erabaki dezan.

Bigarrenik, udala herritarrena izatea nahi dugu, **partehartzeari bideak irekiz**, herritarren eta herri- eragileen parte hartzea sustatuko dituzten prozesuak bultzatuko ditugu. Norabide berean, instituzioen gardentasuna aldarrikatu eta gauzatuko dugu, helburu hori duten eragile zein alderdiekin bat eginaz.

Azkenik, herritar guztien eskubide sozialak ditugu lehentasun. Horregatik, EH BILDUrentzat, herritar guztien ongizateak instituzio ororen politika publikoen erdigunea



DEBAko UDALA

izan behar du. Gutxien dutenen aldeko jarduna izango da gurea, murrizketa sozialei aurre egin eta bizitza duin baterako pertsona orok behar dituen baldintzak borrokatuz.

Helburu hauen lorpenerako bidean, Deba berritzen jarraitzeko gure konpromisoa irmoa da..”

- CRISTOBAL DEL CORTE LAPACHERIE (EAJ-PNV)-koak :


« Azkenengo legealdia herritarren beharren aurka eramandako gobernu batek markatu du. Nahiz eta parte hartze eta transparentzi ereduen musika behin eta berriz entzun izan dugun udaletik, herritarren gehiengoak garrantzizkotzat hartu dituen gai nagusietan praktikan, udalak herritarren iritziei entzungor eta beraiek ordezkatzan dituzten siglentzat bakarrik gobernatzea erabaki zuten, herriaren osotasunaren beharrak kontutan izan gabe. Hori dela eta, Debako EAJtik benetako gobernu zuzen eta eraginkor baterako alternatiba izateko aurkeztu ginen. Herritarrek ordea, aldaketa hau Debarren Ahotsa herri plataformak liderkatzea erabaki zuten pasa den maiatzaren 24ean argi eta garbi.

Debaren hazkunde eta etorkizunerako funtsezkoak diren 4 urte ditugu aurretik. Alkate eta udal berriak, benetako herritarren parte hartzea, enplegua eta herri ekonomia sustatzea, beharrak dituzten herritar guztiei erantzungo dien gizarte ekintza, gazte, langabetu eta egoera zailean daudenei aukerak eman, gure kultura eta herria gure inguru eta lurralde mugetatik haratago proiektatu, eta azken finean, Deba bizitzeko toki hobea bat eta gure herria merezi duen lekuan jartzeko lan egiteko prest izanez gero, Debako EAJ alboan izango du.

Beraz, herriaren hitzari entzunez, Debarren Ahotsa plataformari dagokionez herriak behar duen aldaketa liderkatzea, eta hortarako lan egokia egingo dugunaren konfidantzaz, EAJk Debako hurrengo alkate izateko Pedro Bengoetxeari ematen dio babes.

La última legislatura ha estado marcada por la toma de decisiones sin tener en consideración las opiniones de la mayor parte de los habitantes de Deba. Hemos oído muchas veces las palabras transparencia y participación por parte del gobierno local y sin embargo la realidad es que han brillado por su ausencia. Se ha gobernado con el objetivo de dar satisfacción a unas siglas, pero no a la gran mayoría de los debarras y el resultado lo estamos viendo en este salón. Debido a esto, el PNV presentó una candidatura que fuese capaz de ser una alternativa de gobierno constructivo y participativo . Sin embargo, los debarras han optado por que sea la plataforma DebarrenAhotsa quien lidere en cambio en el ayuntamiento tal y como dejan bien claro los resultados del 24 de mayo.

Estamos ante cuatro años clave para el futuro desarrollo de Deba y el bienestar de sus habitantes. Mientras la Alcaldía y el Ayuntamiento estén a favor de una participación ciudadana real, de la promoción del empleo y el desarrollo económico, de acciones sociales para las personas necesitadas y la juventud, de dar oportunidades a las personas sin empleo que pasan por dificultades, de defender y



DEBAko UDALA

promocionar nuestra nación, lengua y cultura, y se tomen las medidas necesarias para que Deba sea un lugar mejor para vivir y colocarlo en el lugar que se merece, mientras tanto, tendrán al Pnvde Deba a su lado.

Está claro que escuchando la opinión del pueblo, corresponde a DebarrenAhotsa liderar el cambio que Deba necesita y para que esa labor se pueda llevar a cabo con la mayor eficacia posible, desde el Pnv apoyamos el nombramiento de Pedro Bengoetxea como próximo alcalde de Deba.

Zorionak Pedro”

- PEDRO BENGOCHEA LOYOLA (DEBARREN AHOTSA)-koak, alkate moduan :

«Egun on guziori, mila esker zuen bozka eman diguzuenei eta baita beste aukeraren bat aukeratu duzuenei ere.

Eusko Alderdi Jeltzaleari alkatetzarako nire hautagaitzaren alde bozkatzeko erabakia hartu nahi izana ere eskertu nahi diot. Gobernu sendoa eratuko dugu, gure lehen ardura herritarrak dira eta gardentasuna eta herri partaidetza gure programaren ardatz nagusiak. Osoko Bilkuran laster aurkeztuko dugu.

Udal Gobernuaren parte izango ez diren zinegotziori, elkarrizketarako konpromisoa eta hurrengo lau urtetan akordioetara iristeko borondate garbia azaldu nahi dizuet.

Herriarekin konpromisoa hartu dugu, egiteko asko dago, ondo egiteko ilusio handiarekin gatoz eta ziur nago guztion artean lortuko dugula. Nik ahalegin guztia egingo dut.


Besterik gabe, mila esker guztiori.

Muchas gracias a todos y a todas. A quines nos habéis votado y también a quienes hayan dado su apoyo a otras opciones diferentes.

Quiero agradecer también al PNV la decisión de apoyar mi candidatura a la alcaldía. Estoy seguro de que formaremos un gobierno fuerte, con un programa en el que la primera prioridad sean las personas. Un programa ambicioso que próximamente someteremos a la consideración de este pleno y cuyos ejes serán la transparencia y una gestión que fomente la participación ciudadana.

A los que no formen parte del gobierno municipal, quiero trasladarles mi compromiso por el diálogo y mi disposición a llegar a acuerdos en estos cuatro años de legislatura que tenemos por delante.

Tenemos un compromiso con Deba, muchísimo trabajo por hacer y mucha ilusión por hacerlo bien. Estoy seguro que entre todos y todas lo conseguiremos. Yo pondré en ello todo mi esfuerzo.



DEBAko UDALA

Hoy es un día importante para muchos y muchas debarras. Y, por qué no decirlo, especialmente para mí. A pesar de que siempre hay gentes que están dispuestas a estropearlo, eso sí, sin conseguirlo. Desde este momento soy el alcalde todos los vecinos y vecinas del municipio de Deba. Pues bien, hoy a las 12 se va a constituir la Entidad Local Menor de Itziar, y, ni yo, ni los nuevos concejales, hemos sido informados del evento. Siempre que se habla de la ELM ocurren cosas raras. A pesar de todo, me reitero en mi posición de buscar acuerdos con todos los grupos a través del diálogo. ».